

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

12/5/18 | 364

🌀	May Gorostiaga eta Antton Izagirre
🌀	Normalizazioa: Anoeta eta Irura
🌀	Probintzietako abelbidea
🌀	Koxk!
🌀	Gazteok txapinetan



“Bizilagunen parte hartzearekin auzo bizia eraikitzea dugu helburu”

Amarotzeko Auzo elkarte

🌀 Aste iraultzailea bueltan

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

TOLOSA
Kondeko Aldapa, 5
943 - 67 00 40

VILLABONA
Larrea Polg., 34 - 1
943 - 69 48 73

www.funerariavascongada.com



May Gorostiaga

Teatreroa (Intujai Teatro, Amarozko Antzerki Artisauak...)

Neska gazte aborigena zuhaitzera igo eta adar batean eseri zen egindako obra goitik behatzeko.

Aurpegi irribarretsua marraztua zuen lur lehorrean eta adarretik ondo antzematen begitzat xeheki jarritako harri gorri pare, sudurrerako landare siku arraro hura eta "V" letra forma zuen makila ahoa irudikatzen zuena.

Zuhaitzaren adarrean bere artelana begiztatzen ari zen neskarekin erreparatu gabe, mutiko gazte aborigena heldu eta lurrean marraztutako aurpegi irribarretsu erraldoira gerturatzen da.

Giza aurpegiak ohartzean bere beldur sakonenak azaleratu eta bere amorrazio suntsizaitzaile kanporatzen du gazteak: sudurreko landare arraroa esku tartean hartu eta ahalik eta urrutien egotzi du, ondoren, bata bestearen atzetik, begiak osatzen zituzten harri gorriak ere hegaka ateratzen dira hainbat metro.

Neskaren begiak gorritu egiten dira...

Mutilak aurpegi irribarretsu kezkgarri hura guztiz desagerrarazteko, "V" itxura zuen makil magiko hura hartu eta ahalik eta bortizkien jaurtitzen du, eta harrituta gelditzen da bere oinetara nola bueltatzen den, segundoz batzuk barru, egiaztatzerakoan.

Eta oraindik ere neskaren behaketaz konturatu gabe, mutilak berriro botatzen du makil magikoa eta oraingo honetan belauna kolpatzen dio abiapuntura bueltatzerakoan.

Boomerang

Mutikoak hainbatetan jaurtitzen du makila, geroz eta zakarrago, bere amorrazioa handitzen doan heinean kolpea ere tamainan doala jabetzen den bitartean.

Jainkoen zigorraren beldur dago orain gure gaztea giza itxurako aurpegia txikitzeagatik. Horrela, sudurra bezala zegoen landare arraroa birjartzen du, baita harri gorriak begiak osatuz eta makila magikoa irribarrean.

Neska gazteak parra egiten du bere adarretik.

Mutilak begiratzen dio. Hasieran ez du ezer ulertzen baina artelanaren egile nor den sumatu ondoren irribarre egiten du ere.

Neskak dio: "Boomerang izena dut".

Mutikoak zuhaitzera igoztean erabakitzen du eta adarrean elkarrekin eserita irribarretsu geratzen dira artelana begiratuz.

Egun, guztiok dakigu jaurtitzera koan boomerang-a itzultzen dela.

Aborigenek badakite irribarreek boomerang itxura dutela.

Eta geroztik denok dakigu irribarre bat botatzean, lehenago edo beranduago, beti bueltatzen zaigula. Eta geroz eta handiago bada gure irribarrea, horrelaxe izango da jasotakoa.

Ongi izan eta ez ahaztuz aurpegi boomerang bat marrazteaz.

Zaborrak ala hondakinak?

Urte luzetan, zaborrak lehenbailehen begi-bistatik ezkutatuta behar ditugun gai modura ulertzen ohitu gara. Ez dugu ohartu nahi izan, zaborrak arazo bilakatzen ari zitzaizkigula. Ikusten ez dena existituko ez balitz bezala, zaborrak gorde egin nahi izan ditugu eta horren guztiaren arduradun, politikariak egin ditugu. Etxeetan sortzen zitzaigun arazoa politikarietara pasatu diegu, horretarako tasak ordaintzen genituela argudiatuz. Politikariok ere hala uler dadin lagundu egin dugu eta denona den arazoa instituziotara mugatu nahi izan dugu, herritarron parte hartzea ekidinez.

XXI. mendean gero eta nabarmenago geratzen ari da kontsumo ohitura berrien eraginez zabor kopurua egunetik egunera gehitzen ari zaigula, jasanezina egiteraino zaborrekin orain arte mantendu dugun politika. Zabortegiak bete ditugu, zabortegi berriak inork ez ditu nahi bere inguruan eta egin diren berriek gero eta iraupen bizitza mugatuagoa dute.

Arazo hau ez da soilik geurea, mundu garatuan bizi-bizirik dago. Europa osoko kezka dela esango nuke.

Batzuk, ustez, asmatu dute konponbidea: orain arte bezala lurperatu ezin bada, errauskailu erraldoietan erre eta airera jaurtiki zaborra gas toxiko bihurturik. Gutxiago ikusten da eta aire eremua oso zabalak denez, ez du lurralde mugarik. Baina horrek ere jo du bere gaina. Inork ez du bere lurretan errauskailu-

rik nahi ez eta urrutiago izanda ere. Europako agintariak ere ohartu dira hedapenaren larritasunaz eta oso epe motzean gaur aholkuak direnak debeku bilakatuko dituzte etorkizunean. Honela jaso dute zenbait komunikabidek albisteak: "La Comisión de Medio Ambiente del Parlamento Europeo (PE) aprobó ayer un informe que apuesta por eliminar paulatinamente todos los vertederos y la incineración, favoreciendo otras maneras más ecológicas de tratamiento de los residuos". Hori horrela, errauskailuen praktiken defentsan geratzen ari diren bakarrak zaborren kontura negozioa egiteko helburuarekin diharduten enpresa eta teknikari espezializatu batzuk dira. Garai batean nuklear zentralen gaiarekin gertatu bezala errauskailuen inguruan geratzen ari diren interesak, oztopatu egin nahi dituzte europar agintariengandik datozeen orientabideak gauzatu ez daitezken.

Jarrera eta jarduera arriskutsu hauen aurka egin nahi baldin badugu ez dugu beste erremedioren zaborren kontzeptua gainditu eta hondakin kontzeptuarekin lan egitea baino.

Zentzu horretan inguruarekin eta kontsumo arduratsuen konprometituri dauden erakunde, elkarte, eragile, herritar eta politikoen zaborra gas toxiko bihurturik. Gutxiago ikusten da eta aire eremua oso zabalak denez, ez du lurralde mugarik. Baina horrek ere jo du bere gaina. Inork ez du bere lurretan errauskailu-



Antton Izagirre
Irakaslea

Zaborrak gure etxeetan sortu eta dena nahasian poltsatan sartu eta erraustegira edo zabortegira bidaltzen ditugun errefusak dira. Hondakinak gure etxeetan sortu eta sailkatu eta berrerrabili edota birziklatzeko biltzen ditugun elementuak dira. Bada alde!

arduratsuen egitea, arazoak jantziak eta konprometituen sortzea. Dagoeneko ez dago ikastola eta eskolarik hondakinak zabor bihurtu eta erraustegira eramatea bultzatzen duen heziketa programarik duenik. Dagoeneko Agenda 21en eskutik birziklapenean eta kontsumo arduratsuen heziketa programak dituzte eskola edo ikastola guztiak.

Bestetik herritar arduratsuen ereduak bultzatzea: etxea, familia, elkarte... guztietara hedatu, hondakinak gaika sailkatzeko beharrrak eta ohiturak orokortuz. Herri agintariak ausardiaz jokatuz eta zaborren politikak baztertuz, hondakinak sailkatzeko politikak martxan jartzea.

Borondatea nahikoa ez denean betebeharrezko arauak aplikatu eta betearaziaz.

Gaikako bilketa praktika eficienteenak aplikatu, prestutasuna duten herritarren ahaleginak ezerezean gera ez daitezken, interes pertsonalen eta partikularren eraginpean.

Azken batean Ama Lurraren etorkizuna dago jokoan. Zaborren filosofiak eta praktikak galbidera darama, hondakinak kudeaketa arduratsuen bidez bere biziraupena luzatu genezake. Aukerak baditugu. Behingoz Europako haizeak ere alde datoz. Probestu ditugun, herritarron parte hartzearen bidetik norabide onean jartzeko.



Enpresa mundua, euskararen normalizazioan aurrera

Bosgarren urtez jarraian Galtzaundi Euskara Taldeak Irura eta Anoetako Udalekin elkarlanean, enpresa munduan euskararen normalizazioan lanean jarraituko du 2012an ere. Proiektuaz Irurako Udaleko eta Anoetako Udaleko euskara teknikari Idoia Olanori galdetu dio Galtzaundik.

Erredakzioa

Proiektuak Irura eta Anoetako udalerrietan kokaturiko enpresetan euskararen erabilera normalizatzeko ekintzak bultzatzea du helburu. Lana 2008an abiatu eta urterik urtera, 2012a bitartean gauzatzeko jarraitu da. Aurten, ordea hainbat berritasun aurkeztu dira eta horien berri eman du

Idoia Olano euskara teknikariak.

Euskara lan mundura gerturatu bosgarren urtea burutuko dela eta, emandako pausuen bilakaeraz mintzatu da udaletako ordezkaria: "hasieran ahalik eta enpresa gehienetara iristen ahalegintzen ginen, aurten ordea, baita krisi garaia dela eta, aurreko urtetan borondate ona azaldu

duren enpresek zentratuko gara". Aukeratutako enpresa horiei lana erraztea izango da Galtzaundi Euskara Taldearen egitekoa: "enpresei gauzak ahalik eta gehien erraztuko dizkiegu, enpresek aurten hartu beharreko konpromisoak oso zehatzak izango dira", dio Olanok.

Egungo egoera kontutan harturik, Idoia Olanok dioen modura, aipatzekoa da enpresentzat euskararen erabilera lehentasunezko kontua ez dela: "errealistak izan behar dugu eta gauden garaian egonik, krisi bete-betean, enpresentzat ez da lehentasunezkoa euskararen erabilera". Horregatik, udalen erabakia Iruran 7 enpresen eta Anoetan beste 7 enpresen aukeraketa egitea izan da. Aurten ordea, konpromiso orokorrak baino konpromiso oso zehatzak proposatuko zaizkie aipatu enpresei: "konpromiso orokorrak hartzeak ez dauka zentzu handirik, askotan ez baitakite nola gauzatu", dio teknikariak. Konpromisoak zehatzak izanik, alor ezberdinetan zehaztuko dira: paisaia linguistikoa, hitz teknikoen erabilera eta barne eta kanpo harremanak.

Aurrera eraman beharreko beste berritasuna, parte hartzaileen arteko ezagupenarena da. "Orain artean ez dugu batera landu enpresen arteko harremana eta aurrerantzean sustatu nahi dugu, enpresa bakoitzak besteen berri izan dezan", dio Olanok. Hau da, enpresa bakoitza zein egoratan dagoen beste enpresek ere ezagutu dezaten, konpromiso berdinak zein enpresek hartzen dituzten jakinaraziz. Honela, elkarlana, elkarkidetzeta eta elkar ezagupena azpimarraturik geratuko dira.

Goraipatzeko lana

Iazko abenduaren 3an, Euskararen Egunean, Galtzaundi Euskara Taldeak "Eskerrak Zuri" delako ekimenean proiektu honetan parte hartzen duen Baso-Lur enpresa saritu zuen, urte hauetan zehar euskararen normalizazioan emandako pausoengatik. Tankerako ekimenak, hau da, enpresek burutzen duten lana kontutan hartzea eta goraipatzea oso positibotzat jotzen du Irura eta Anoetako euskara teknikariak: "txalotu eta sustatu behar dugu, enpresek egiten duten lana ezagutu behar da. Beste enpresek ere jakin behar dute

enpresa bakoitza zertan ari den. Ereduak aurkeztu behar ditugu".

Ereduak aurkeztearekin batera, gainerako enpresei konpromisoetan aurrera egiten lagunduko die: "ez da konplikatu, pausoak pixkanaka eman behar dira eta ez dago enpresa hankaz gora jarri beharrik. Egingarria da eta prestigioa eskuratzen laguntzen du", dio Olanok.

Prestigioa. Hori baita proiektu honek Irura eta Anoetako enpresei eskaini nahi diona, euskararekiko jarrera erakutsiz ere enpresari prestigioa ematea. Horrela azpimarratzen du, behinik behin, hizlariak: "prestigio hori enpresei interesatzen zaie; gauden garaian, beharrezkoa da".

Bestetik, pausoetan aurrera egin eta enpresaren batek kalitate ziurtagiriekiko interesa azalduz gero, aipatu ziurtagiriak lortzeko bidea azaltzeaz gain, ziurtagiriak ematen dituzten ordezkariekin bilkura antolatzea izango da Galtzaundiren lana.

Hautatutako 14 enpresei 2012ko programari ekin eta euskararen normalizazioan aurrera pausoak ematen jarraitzea dagokie orain. ☺



Aurteke
LORATEGIA CB

Etxebarru zein kalerako lorak.
Lorategi lanabesak.
Lora legor eta apaindura tresnak.

Santa Luzia Auzoa, 1 -
Tel: 943 673 118 Tolosa

euskararen
semaforoa
euskararensemaforoa
blogspot.com

matilda

zure moda osagailu denda

Korreo Kalea, 3
Tolosa

Aste Iraultzailea bueltan

Maiatzaren etorrerarekin batera, bueltan da Euskal Herria Sozialistak (EHS) azken hiru urtetan Tolosako Engels ateneoan antolatutako Aste Iraultzailea. Oraingoan, bost hitzaldiz osatutako egitaraua aurkeztu du Tolosako taldeak; maiatzaren 21ean hasi eta 26a bitartean egingo dira.

Naiara Roldán de Aránguiz

EHSren ustetan, aurtengo Aste Iraultzaileak izaera berezia izango du "bizitzen ari garen momentu historikoagatik": sistema kapitalistaren krisialdia, enpresa handien eta kapital finantzarioaren alde gobernuek hartutako erabakiak, enpresa itxierak, herritarrei zuzendutako zerbitzuen murrizketak... Egoera honen aurrean, EHSk dioenez, "klase arteko borroka Europan eta mundu osoan barrena dabil".

Honako testuingurua kontutan harturik, EHSk bost hitzaldiz osatutako egitaraua aurkeztu du: Greziako gertakizunak langileen ikuspegitik aztertuta; EHSk argitaratu berri duen dokumentu programatikoa; Irlandako historia eta James Connolly marxista irlandarra-

Aste iraultzailea

Lekua: Tolosa. Engels Ateneoa, Errementari kalea

Maiatzak 21, astelehena. 19.30.

"Frankismo eta trantsizio garaiko borroka politiko eta sozialak".

Hizlaria: Jon Mintegiaga, "Frankismoa eta trantsizioa Tolosaldean", liburuaren egileetakoa.

Maiatzak 22, asteartea. 19.30.

"Autodeterminazioa eta sozialismoa, programa iraultzaile eta internazionalista Euskal Herriarentzat" dokumentuaren aurkezpena.

Hizlaria: Ibon Artola, EHSko kidea.

Maiatzak 23, asteazkena. 19.30.

"Villaverde del Rio: langileen aldeko udal-letxe politika".

Hizlaria: Santiago Jimenez, Villaverde del Rioko alkate marxista.

Maiatzak 24, osteguna. 19.30.

"Irlanda eta James Connolly marxista irlandarraren ideiak".

Hizlaria: Urtzi Reguero, EHSko kidea.

Maiatzak 26, larunbata. 11.00.

"Grezia: langile klasearen borroka eta iraultza sozialista".

Hizlaria: Iker Otermin, EHSko kidea.



Hitzaldien zergatia eta helburua

EHSko kide den Ibon Artolak Aste Iraultzailearen zergatien berri eman dio Galtzaundiri: "kapitalismoaren aurkako borrokan oinarrizkoa da marxismoaren ideiak zabaltzea eta hori izango da Aste Iraultzailearen helburu nagusia. Erasoan aurka borroka egitearekin batera, kapitalismoaren alternatiba beharrezkoa dela uste dugu, eta horregatik, hitzaldietako bat EHStik argitaratu berri dugun dokumentu programatikoa aurkezpena izango da".

Krisialdi egoera honetan,

herritarrek Aste Iraultzailean proposaturiko hitzaldiak era berezian espero eta eskertzen dituztela uste du Ibon Artolak: "garbi dago Aste Iraultzaileak izaera berezia izango duela bizitzen ari garen momentu historikoagatik. Gero eta langile eta gazte gehiagok, kapitalismoak irtenbiderik ez duela ikusten du. Beharrezkoa da gizarte berri bat. Ez dakigu aurrekoe-tan baino jende gutxiago edo gehiago etorriko den; faktore asko kontutan hartu behar baitira. Baina, badakigu kapitalismoarekin bukatzeko nahia eta marxismoarekiko interesa handitzen ari dela".



ZALBIDE
Tolosa Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan. Ostirala, larunbata eta igande eguerditan irekita, iluntzetan egunero.

Zalbide baserria - Abaltzisketa
Tel: 943 652 176

SANTAMARIA
Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantzirako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610
TOLOSA

gizarte kutxa

HALCON
BIDAIAK

Bidaiarik erakargarrienak

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxa: 943 674 113

errrotatxo okindegia

Andia kalea, 3 Amaro, 9-A
Tel.: 943 655 492 Tel.: 943 671 038

Santiago Jimenez: "Berezko gizarte funtzioa ezartzeko okupatu ditugu etxebizitzak"

Santiago Jimenez, Villaverde del Rioko (Sevilla) alkate marxista da. Euskal Herria Sozialistak antolaturiko Aste Iraultzailearen baitan, martxoaren 23an, Tolosako Engels ateneoan, arratsaldeko 19.30ean hasita "Villaverde del Rio: langileen aldeko udaletxe politika" hitzaldia eskainiko du. Galtzaundik Santiago Jimenezekin, udala batzar bidez kudeatzeaz hitz egin du.

Zure hitzaldiaren oinarria: "alkate marxista" izatea da. Nolakoa da aurrera eramaten duzun gobernu sistema?

Sevillako eskualde honetan ibilbide luzea dugu. Gure metodo politiko-sindikala, langileen parte hartze aktiboan, esku-hartzean, aldarrikapenean eta mobilizazioan oinarriturik dago. Langileen mesedean oinarritutako egitarau politikoa sortu eta garatu dugu.

Lan instituzionala herrian (ikastetxeetan, lantegietan, gazteen artean) emandako lanaren mende jartzen dugu; lana eta konfiantza udaletxera eramaten ahalegintzen gara. Gure helburua estatuaren aparatua ez izatea da.

Zure udalak etxebizitzaren auziari ekintza zehatzez erantzun dio, eraikuntza enpresak erdizka utzitako 58 etxebizitza okupatu dituzue...

Etxebizitza oinarritzako eskubidea da, benetako politika ezkertiarren eta iraultzailearen abiapuntua da. Sekula ezin da negoziario bilakatu. Sekula

ezin dira hezkuntza, osasuna edota etxebizitza bezalako oinarritzako eskubideak eraikitzaileen, sustatzaileen edota higiezinaren enpresen esku utzi. Egun herritarrok jasaten dugun erabateko desastre honen arduradunak dira aipatutakoak. Kontrara, erakunde publikoek etxebizitza eskubidea bermatu behar dute.

58 etxebizitza hauen lanak geldi daude, ez dute inolako bideragarritasunik eta arazo bilakatu dira. Jabetzaren gaitetik funtzio soziala eman behar zaie. Higiezinaren jabetzak paper erabat kaltegarria betetzen du. Lanak geldirik daude eta gizarteak ez du inolako onurarik eskuratzen. Guk proiektu bilakatu nahi dugu, jabetzaren muga zeharkatu dugu, okupatu egin ditugu berez dagokien gizarte funtzioa ezartzeko. Lanekin jarraitu nahi dugu langabezia dauden langileek bertan lanean arituz, lanak batzar demokratikoen bitartez banatuz, langileei hitza emanez. Behin eraikuntza amaituta, ondo



antolatutako plan bat medio, benetako etxebizitza beharra duten familiei esleituko zaizkie. Etxebizitzak eraikitako prezioan salduko dira, Andaluziako Juntak eskainitako laguntzak medio. Gure asmoa

Andaluziako Juntaren babesa lortzea da, desjabetzarekin eta obraren finantzaketarekin lagunduz, alegia. Honela, langile alokairuak indarrean jarriko genituzke -langile soldataren %10a-.

Tankerako ekintzak batzar bidez osatutako gobernu moduan oinarriturik daude. Linguistikari dagokionez, batzarra demokraziaren oinarritzako unitatea da, langileen zuzeneko demokrazia organoa. Borrokarako organoak dira, baina baita erabakietarako eta eztabaidarako organoak ere. Denbora luzez hitz egiten egon beharrean, organo hauetan zuzenean eztabaidatu eta era demokratikoan, erabakiak hartu eta indarrean jartzen dira. Batzarrean partaidea zuzenean mintzatzen dira. Hau da, inork ez ditu parte hartzaileen beharrik interpretatzen.

Ordezkaritza bidezko demokraziaren ordea, iruzurra baino ez da ematen: inolako ordezkaritza ez da ematen, bankuek eta sistema finantzarioak agintzen baitute. Gu demokrazia bakunago baten alde gaude, herritarrok zuzenean hitz egitearen alde.

Gaur egun indarrean dagoen sistema baino horizontalagoa?

Erabat. Egunero komunikabideetan ordezkaririk zinikoenek eskubide guztiak murriztu eta klase ertaineko familien bizibaldintzak txikiagotu behar dituztela adierazten dute, defizit helburu batzuk eskuratu behar direlako. Horrenbeste kostatuko baldintzei muzin egitera behartzen gaituzte. Baina aipatu helburuak bankuek, aberatsek eta sistema finantzarioak ezartzen dituzte. Munduko hautatu batzuen diktadura modukoa da. Eurek erabakiak hartu eta gobernuak ezartzera mugatzen dira. Gure ustetan benetako demokrazia langile, familia eta herritarren ahotsean ordezkatu behar da. Herritarrek zuzenean adierazi eta zuzenean erabakitze organoak behar dituzte.

Ez da hitz egite kontua, axola zaizkigun gaiei buruz eraba-

kiak hartzea da. Demokrazia formalak ez dauka honelako mekanismorik. Gure inguruan ematen diren iruzurrak medio, tankerako gobernu moduak gero eta beharrezkoagoak dira.

Bestelako herriguneetarako eredu baliagarria izan daitekeela uste duzu?

Baietz uste dut. Guk erabilitako ereduak ez dugu guk asmatu, langile mugimendua berreskuratu, geureganatu eta hainbat tradizio indarrean jarri ditugu. Hamarkadetan eta hamarkadetan, langileen errebundizioak medio aurrera eramandakoak dira. Oron gaitetik, egin beharrekoa, modeloak kopiatzea baino, hausnartzea da. Erakundeetan politikariek betetzen duten paperaz hausnartu beharra dago. Hauteskundeetan gizon-emakumeek ordezkaritza eta boterea eskuratzen dutenean herriaren aldeko erabakiak hartuko dituztela pentsatzen dute. Errealitatea baino ilusioa da hori. Udaletxea, herritarrengandik gertu badago ere, estatu aparatuen parte da; erakunde bat da, legedi eta arautegi zehatza bete behar duena.

Gauzak honela, askotan borondate politikoa aurrerabiderik gabe geratzen da, milaka oztopo aurrean dituela. Gogoak eta indarrak milaka pareten kontra talka egiten dutenean politikaria adoregabetzen da. Horregatik, udaletxea estatu aparatuen parte dela argi izatea beharrezkoa da. Bidegabekia denez, aurre egin behar zaio; ez da nahikoa ezarritako mugak indarrean jartzea, aurrekontu murrizketei aurre egin behar zaie. Horretarako, erabili beharreko metodoa batzarrarena da, herritarren parte hartze zuzena ahalbidetzen duena. Udaletxeko lau paretetatik atera

beharra dago, herritarrek batzarrean antolatu behar dira: borrokatzeko, eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko. Burokrazia gorroto dugunontzat udaletxea jasanezina denez, baliagarriak diren metodoekin aurre egin behar zaio.

Zure hitzaldia baliagarria da aipatu oztopo horien aurrean baikortasunez ekiteko?

Jende zintzo, gogotsu, borrokalari asko dago. Udal batean denbora luzez aritu ondoren ordea, indar horiek galtzen doaz, asmoak deusean geratu eta aurrera eraman ezin direlako. Oztopoak ugariak izaten dira: txostenak, sail ezberdinak, eraginak, eskrupulurik gabeko jendea... Gainera ezarri beharreko legea, dirudunen eta botere ekonomikoaren aldekoa da. Zintzoenei ezintasuna eta etsipena sortzen zaizkie, azkenean askok estatuarekin bat egin eta euren lanpostuari baino ez diote begiratzen; beste batzuek ordea, alde egin behar izaten dute, bidegabekiarik baino ikusten ez dutelako. Azken finean, herritarren alde aritzeko, egoera gaitzetzeko metodoa izatea beharrezkoa da.

Azkenik, testuinguruan kokatzeko, Villaverde del Rioko (Sevilla) erradiografia laburra aurkeztuko?

7.500 biztanle dituen herria da. Nekazaritza aldetik Sevilla zein Andaluziako eskualderik emankorrenean kokaturik dago, Vega del Guadalquivir eskualdean. Eraikuntzak pisu handia zuen baina erabateko gainbehera iritsi da. Langileok batzen gaituzten ezaugarriak aurki daitezke, errebundizio berdinak ditugu: duintasunez bizitzea, bizitza-kalitatea eskuratzeko, seme-alabei etorkizuna bermatzeko, zerbitzu duinak izatea, lana izatea, etxebizitza izatea... Bizi garen tokian bizi garela honek batzen gaitu. ©

Xirimiri
Txokolategia
Xabier Izagire
Gosariak eta meriendak
Tel.: 943 675 223
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

ELUSTONDO
ELEKTRIZITATEA
Argi lanak
Iluminazioa
Antenak
Iurre, 4 (Mustad)
943 672 300
Amaroz, 21.
943 675 513
20400 TOLOSA

Zumardi
SEGUROS
BILBAO
Aholkularitza
integrala
Laskurain, 8-behea
TOLOSA
Tel.: 943 651 877

Martin
Eceizabarrena
Instalazio
erreforma
Konponketak
Igaralde, 11 - Tolosa
Tel.: 943 672 445
Mobila: 608 774 822

J. San Sebastian
MARISKO ETA ARRAINAK
Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141

Probintzietako abelbidea

Egun GR 9 izenez ezagutzen dena, garai batean abereak Nafarroatik Gipuzkoara garraiatzeko erabiltzen zen. Gipuzkoako herrietako festetara, gehien bat zezenak eramaten zituzten "Probintzietako abelbidea" delakotik. Maiatzaren 19an, ordea, Berastegiko Aldin Kultur Elkarteak eta Tolosako Andia Kultur Elkarteak bi mendi ibilaldi antolatu dituzte.



Erredakzioa

Juan Ignacio Elosegik, Berastegiko Aldin Kultur eta Kirol Elkarteko kideak jakitera eman duenez, datorren maiatzaren 19an, larunbatean, "bi ibilaldi prestatu dira Altxonbide edo Abelbide deitzen duten bide zaharreen barna".

Lehenengoa, Beorburutik Tolosara bitartekoa izango da, guztira 47,7 kilometro zeharkatuz, 10-12 orduko ibilaldian. Ibilbide honetan izena emateko bideak ondorengoak dira: 652 769059 telefono zenbakian edo jielosegi1@gmail.com helbide elektronikoan. Ibilaldiaren hasiera Beorburun, goizeko 07.15etan bada ere, aurretik autobus zerbitzua ere egongo da (06.00 Santa Klara Zumardi Txikia, 06.20 Berastegi eta 06.30

Lekunberri). Ibilbide honek Nafarroako eta Gipuzkoako lurraldeak zeharkatuko ditu: Beorburu, Muskitz, Oskotz, Etxaleku, Beramendi, Aldatz, Uitziko Gaina, Pagozelaieta, Ulizar, Uli, Ibarra, Gaztelu eta Tolosa.

Bigarrenak ordea, ibilbide motzagoa hartuko du bere gain. Guztira 18 kilometroko ibilaldia izango da, Beorburutik Aldatzera bitartekoa. 4 orduko ibilaldi hau goizeko 09.00etan abiatuko da eta helmugara iritsi orduko, parte hartzaileekin bazkaria ospatuko da Aldatzeko Ostatuan. Bigarren ibilaldi honetan izena emateko, interesa dutenek bi bide dituzte: 652 193750 telefono zenbakia eta koldomiranda@yahoo.es helbide elektronikoan. Izena emateko

25 euro ordaindu behar dira, bazkaria eta autobusa barne.

Historiadun ohitura


Usadio honi 1792an eman zitzaion hasiera eta ordudunik zaitzaion errepikatu egin da, beti ere Olinpiar Jokoak ospatzen diren urtetan; "ohitura olinpikoa" ere badela esan daiteke, beraz. Hala ere, kirol probaz harago, kultur ekitaldia ere bada Probintzietako Abelbidearen zeharkaldia. Aldin Kultur eta Kirol Elkartetik jakitera ematen dutenez, aurtengoa lehen urtea izango da nafarrek parte hartzen dutela. Honela, auzotar diren gipuzkoar eta nafarren arteko "adiskidantza eta anai-

tasun ekintza" gisara ere ulertu beharra dago.

Egun GR 9 bezala ezaguna bada ere, beste izen askorekin ezagutu izan da aitzinean ere: Altxonbide, Abelbide edota Errege bide. Bidea aipatu bi ibilbideak baino luzeagoa ere bada. Izan ere, Noainetik Deba arteko distantzian zabaltzen da. Errepideak bere nagusitasuna hartu bitartean, 1792. urtea arte gutxienez, zezen eta zezenkoak bide honetatik eramaten ziren Nafarroatik Tolosaraino eta baita Gipuzkoako beste herrietaraino ere. Oraingoan ordea, protagonismoa, abereek mendizaleei utziko diete.

Heziketa zikloak:

Erdi mailako zikloak:

- Mekanizazioa
- Instalazio elektriko eta automatikoak
- Telekomunikazio instalazioak 

Goi mailako heziketa zikloak:

- Fabrikazio mekanikoko diseinua
- Sistema elektroteknikoak eta automatizatuak
- Animazio soziokulturala eta turistikoa

Eskaintza partziala

- Instalazio elektriko eta automatikoak: Hernani, Easo eta Usurbilen arteko plana.

Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak

- Mekanizazioko langilea 

Sarbide Proba

- Goi mailako heziketa zikloetan sartzeko proba prestatzeko ikastaroa.

Jabi Markez

“Bizilagunen parte hartzearekin auzo bizia eraikitzea dugu helburu”

Auzo bizia zuten helburu Amarotzeko biztanleek eta, horretarako, Amarotzeko Auzo Elkarte sortu zuten 1974. urtean. Ereindako lurak bere fruituak ematen ditu eta, ia 40 urte beranduago, amaroztarrek amaroztarrentzako sortutako talde eta txoko ezberdinak dituzte: mendi elkarte, festa batzordea, Beti Gazteak jubilatuen taldea, umeen dantza taldea, antzerki taldea, guraso eta umeak elkartzen diren Txoko-Txiki gunea,... Horretaz guztiaz hitz egiteko, Amarotzeko Auzo Elkarte lehendakari Jabi Markezekin bildu gara.

Igor Mujika

Amarotzeko Auzo Elkarte-ko lan taldea -10 bat lagunez osatua- astelehenero elkartzen da, Amarotzeko haur parkearen ondoan dagoen eraikinean, Auzoetxen. Eraikina bera Amarotzeko auzoak elkartzeko eta sortzeko duen gaitasunaren erakusle da: alde batean Amarotzeko antzerki taldea biltzen den gela dago; haurrak jola-

sean eta gurasoak elkarrekin egoteko Txoko-Txiki gunea dago ondoan; auzoan antolatzen dituzten bazkari eta bestelakoak egiteko sukaldea ere badago; halaber, Amarotzeko koroak eta dantza taldeak erabiltzen duten aretoa, KZGunea eta mendi taldearen eta Amarotzeko Auzo Elkartearen bilkura gelak ere bertan dira. Beti Gazteak ju-

bilatuen taldea, berriz, beste eraikin batean biltzen da.

Sortu zeneko helburu berak ditu Amarotzeko Auzo Elkarteak: “bizilagunen parte hartzearekin auzo bizia eraikitzea”. Eta, auzolana izan dute horretarako bitarteko. Horren adibide da Amarotzeko Auzo Elkarteak aspalditik eskuartean duen egitasmoa: Amarotzeko auzoa Tolosako erdigunearekin lotzen duen bidea moldatzea.

Auzotarren artean eztabaidatu eta bozkatu ostean -2010eko urtarrilean- erabaki zuten Amarotz auzotik Lizartzarako norabidean igarotzen den errepidean moldaketak egitea eta oinezkoentzako nahiz bizikletan ibiltzeko egokitzea.

Auzotarren artean zer nolako bidea nahi zuten adostu ostean, Tolosako Udalarekin behin eta berriz bildu dira egin beharreko aldaketak egiteko eskatuz. Hala azaldu digu Markezek: “aspaldiko borroka da. Amarotzeko auzoa Tolosako erdigunearekin modu egokian lotzeko bidea nahi dugu eta, horretarako, Lizartzara doan errepidea, Amarotzeko auzotik igarotzen den zatian, aldatu egin behar da. Aspalditik ari gara hori exijitzen. Duela bi urte inguru bozketa ere egin genuen eta, norabide bakoitzean errail bakarra egotea eta, Amarotz eta Tolosako erdigunea egokiago lotuko lituzkeen espaloi zabala eta bizikleta bidea egitea era-



baki genuen. Orduetik, udal-letxearekin harremanetan gabiltza Amarotzeko herritarrek esanikoa betetzeko eskatuz. Urte asko daramazkigu istorio honekin”. Izan ere, Amarotzeko Auzo Elkartearen iritzian, “autobidearen sarrera eta irteerengatik nahiz suhiltzaileen eraikina-alderra doan bialarekin, herrigunearekin komunikatzeko zailtasunak ditugu”.

Bestelako zereginetan ere aritzen da Amarotzeko Auzo Elkarte. Esaterako, etxetxeen igogailuen berritzeak eta mantenimenduak, fibra optikoa, gas naturala,... auzo moduan negoziatzen dituzte eta, ondorioz, banaka edo

etxebizitzak eginda baino baldintza egokiagoetan lortzen dituzte, “auzo moduan indar gehiago egiten dugulako”.

Gurasoak eta haurrak

Amarotz auzoak dituen beharrak asetzen saiatu izan da beti Amarotz Auzo Elkarte. Horren erakusle da, esaterako, Txoko-Txiki gunea. “Duela hamar bat urte jarri genuen martxan. Euria egiten zuenean haurrekin non egon ez genuen eta hutsik zegoen lokal bat hartu eta umeak eta gurasoak bertan egoteko egokitu genuen: lurtean marrazkiak egin genituen eta jostailuz,... bete

genuen. Txiki-geratu zitzaigun eta ondoko lokalarekin lotu genuen. Egun, bertan elkartzen dira gurasoak eta seme-alabak. Txoko-Txiki eraikitzean argi genuen haurtzaindegi tradizionala baino gurasoak eta umeak elkartuko ziren gunea behar genuela eta, egun, 17:00etatik 19:30ak aldera arte bertan egoteko aukera izaten dute gurasoek eta haurrek.

Jubilatuak ere beren txokoa dute Amarotzen. Beti Gazteak taldean antolatuta, irteerak, bingoak,... antolatzen dituzte. Amarotzeko mediku zentruaren alboan dute egoitza. Hain justu, mediku zentrua ere auzotarrek



16

egindako borrokaren ondorioz jarri zuten Amarotzen. Auzo elkartetik azaldu digutenez, Amarotzeko mediku batek bere burua eskaini zuen bolondres gisara mediku arreta emateko eta, "gogor borrokatu ostean, egun irekita dagoen Osakidetza-ren mediku zentroa lortu genuen".

Auzotarren inplikazioari esker lortu du Amarotzek, "auzo bizia izatea, lo-auzoan ez bilakatzea". Bertan ere, ordea, aldatu dira joerak, ... Jabi Markezek aitortu digunez, orokorrean auzolanerako prestutasun gutxiago dago egun, duela urte batzuk

baino. "Hamahiru urte genituenean, iturria konpondu behar bazen, deialdia egin eta auzotarrak mobilizatu egiten ginen, guraso eta gazte, auzoa zaintzeko. Pixkanaka galtzen joan den balorea dela uste dut. Iazko azaroan uholdeak izan ziren eta, denok, begira geratu ginen. Duela urte batzuk, herritarrak elkartu eta ino-

ri itxaroten geratu gabe, txukundu egingo genuen auzoa. Egun, ordea, beste modu batera funtzionatzen dugu: herri langileak noiz agertuko zain geratzen gara, beraien zeregina dela uste dugulako. Udaletxeak egin-

go du, ... pentsatzen dugu. Gauza bera gertatzen da elurteetan ere. Oso gutxi dira udal langileek utzitako gatza hartu eta lurtean botatzen hasten direnak. Oso garrantzitsua da auzolana eta, azken uholdeen ostean, auzolana indartzeko zer edo zer pentsatu behar genuela hausnartu genuen".

Auzotarren arteko komunikatzeko bitartekoa ere badu Amarotz Auzo Elkar-teak. Urtean lau bider, 500 aleko tirada duen aldizkaria argitaratzen dute. Amaro-tzeko etxe, komertzio eta tabernetan banatzen den aldizkariak auzotarren artean

eztabaida sustatzea, auzotarrak informatzea, deialdiak argitaratzea, ... du helburu.

270 familia inguruk osatzen dute Amarotzeko Auzo Elkartea eta, urtero, 10 euro ordaintzen dituzte gastuei aurre egiteko. Auzolana sustatzea eta auzotarren eta elkartearen arteko harremana oraindik eta gehiago indartzea ditu helburu Markezek. Horretarako, astelehenero Auzoetxan 19:00etan egiten duten bilkurara gonbidatzen ditu auzotarrak. Tolosako alkate Ibai Iriarterekin egindako bilkura izango dute, besteak beste, hizpide batzarrean. ©



Amaia Etxetxipia
Nutrizio aholkularia

Koxk! Janariarekiko antzietatea edo menpekotasuna?

Janariarekiko "antsietateaz edo gogo bizi-az" hitz egitea "menpekotasunaz" hitz egitea baino egokiagoa omen da. Baina askok, bigarrena da benetan bizi duten egoera. Desberdinak al dira?

Antzietateaz hitz egiteko orduan, honako definizioa ematen zaio: elikagai bat jateko nahi bizia, ezetz esatea zaila egiten denean, eta gainera oso ohikoa izaten dena. Egoera honek badu bere garrantzia, erlazio handia izan dezakeelako bulimia, obesitate eta beste zenbait osasun-arazoetan ematen den gehiegizko elikagaien kontsumoarekin. Teoria desberdinak daude egoera hau azaltzeko. Ikerlari batzuek diotenez, oreka fisiologiko bat dugu, janariaren Auzoetxan 19:00etan egiten duten bilkurara gonbidatzen ditu auzotarrak. Tolosako alkate Ibai Iriarterekin egindako bilkura izango dute, besteak beste, hizpide batzarrean. ©

batzuk honelako kasuetan txokolata nahi izaten dute, eta hau, txokolatean dauden sustantzia psikoaktibo batzuen ondorioz gertatzen omen da, hauek izanik egoera animiko eta apetituaren erregulatzaile garrantzitsuak.

Menpekotasunaz hitz egitean, sustantzia baten erabilera konpulsibo eta kontrolrik gabeko kontsumo bat azaltzen da. Umore txarra eta urduritasuna ere azaltzen da, sustantzia konkretu hori lortu ezin denean (eta egoera hau, janariarekin erlazioatutako desoreka edo arazoak dituzten pertsonen kasuan agertzea ohikoa izaten da). Guzti honengatik, ikerlari askok uste dute, garunean bide komun bat dagoela sustantzia edo elikagaien bidez lortzen den atseginararen arduradun.

Jatea, portaera konplexu bat da, eta gure organismoko hormona eta sistema desberdinek parte hartzen dute. Ia atsegin guztiak (adibidez edertasuna, musika edo kirola) dopaminarekin erlazioatzen dira, eta berdina ger-

Menpekotasuna? Antzietatea? Egia esateko, jende askori iruditzen zaio janariarekiko menpekotasuna duela, ezta?

tatzen da koipe altuko elikagaiak hartzean. Posible da, zenbait pertsonen garunek, janariarekin erlazioatutako estimuluak era desberdin batean prozesatzea. Eta azkenean, guzti honen ondorioz hauxe da: elikaduraren kontrola mantentzeko ahalmena edukitzea edo ez edukitzea. Eta elikadurarekiko jarrerarekin lotuta ere beste arazo bat dugu: estresa. Gure organismoko seinale biologikoekin bat gaudenean, goretuta gaudenean jaten dugu eta beteta gaudenean jateari utzi egiten diogu. Baina beste pertsona batzuek faktore emozional edo psikologikoen eraginez, bere seinale biologikoek ez diete kasurik egiten, eta kontrolrik gabe jan dezakete. Honelako egoeren aurrean, gomendagarria omen da gehiegi jatea zer nolako egoerak bultzatzen gaituen aztertzea, egoera horri aurre egin ahal izateko.

Eta azkenik, estresaren aurrean lagungarri izan daitezkeen zenbait elikagai azalduko ditugu. Adibidez:

- Proteinak: estresa dagoenean proteinen beharrak handituta daudelako.
- Almendrak: kaltzio, magnesio eta potasio mineralak ditu kantitate egokian nerbio sistemaren oreka egokia lortzeko.
- Pinazia: B bitamina eta gantz-azido esentzial ugari ditu, nerbio sistemak modu egokian lan egiteko.
- Garbantzuak: proteina, karbohidrato eta B bitamina ugari ditu.
- Gari hazia: nerbioentzat suspertzaile ona da, proteina, gantz-azido insaturatu, bitamina eta mineral ugari dituelako.
- C bitamina: estresa dagoenean, bitamina honen beharrak handituta daude. Ez hori bakarrik, bitamina honek gure defentsak estimulatzen dituenez, oso egokia da estresa dagoenean.

17

Gazteok txapinetan

Iritsi da Txapin Festaren zita azken bost urteotan bezala. Aurtengoan Tolosako gazteek maiatzaren 19a aukeratu dute festa herrikoia eguna. Unai Olalde, Ane Etxebeste eta Estanis Arsoagak Txapin Festaren berri eman diote Galtzaundiri.

Naiara Roldán de Aránguiz

Maiatza Txapin Festaren urteroko zita bihurtu dute Gazteok Txapinetan taldearen baitan bilduriko gazteek, "urtean zehar bildu eta eztabaidatutakoa" datorren larunbatean kalera aterako dute. Kalejirak -gazte lokaletatik barrena txarangak lagunduta-, baltsa jaitsierak -Oria ibaian-, bazkari herrikoiak, bertsolariek, jolasek eta Karma eta Kantaflor taldeen kontzertuek osatuko dute egitaraua. Egitaraua goizean goiz hasi eta egunaren amaiera arte luzatzen bada ere, ekintza bakoitza independentea izanik, norberak nahi duenetan parte hartzeko aukera dauka.

Hala ere, bazkarirako tiketak aldeztuak erostea beharrezkoa denez, sarrerak dagoeneko salgai daude Raku, Kikara eta Denak tabernetan 12 euroren truke. Bazkarirako

txartelak kamiseta eskuratzeko bidea ere emango du, joko eta ekitaldi ezberdinetan koadrilak identifikatzeko baliagarria eginez.

Urtetik urtera, Txapin Festaren xedea betez jarraitzen dutela argitzen dute antolakuntzatik, "festa herrikoia" sortuz; ekitaldia "gazteok gazteontzat antolatutakoa" izanik, alegia. Hau da, auto-antolakuntza gazte tolosarren oinarria dela azpimarratzen dute: "gazteok ez gara festa kontsumitzaile hutsak, gai gara geure neurriara egindako festa antolatzeke", diote.

Honela, aurreko bost urteetako bideari heldu eta aurtengo antolakuntza lanetan murgildu dira Unai Olalde, Ane Etxebeste eta Estanis Arsoaga, Tolosako beste hainbat eta hainbat gazteekin batera. Lehenengo edizioa ospatu zutenean 60 bat pertsona bildu zirela gogoratzen badute ere, urtetik urtera kopuruak gora egin du, iazkoan 170 bat pertsona elkartu bitartean. Aurtengoan zifra horri helduko diotela seguru dira baita zertxobait gora egingo duela ere, urteroko gorakadari jarraipena emanez.

Izan ere, azken bost urte hauen bilakaerari buruz galdetzerakoan, bildutako jende kopuruari egiten diote erreferentzia tolosar gazteek. Jende gehiagok parte hartzeaz gain, bilduriko jendea ere aldatu egiten dela azpimarratu nahi izan du Unai Olalde: "urtero berritzen doa; batzuk alde egiten dute eta beste batzuk etortzen dira".

Baltsa jaitsiera

Baltsa jaitsierari dagokionez, arrazoi ekologikoak medio zein gazteei baliabideak erraztu asmoz, poltsa puzgarriak eskuragarri jarriko dira aurtengo Tolosako Ferialekuan. Aipatu gunean, gainera gazteek baltsak egiteko aukera ere izango dute. Aurreko urtetan, baltsak bidoiekin egiten zirela aitortzen dute, asko eta asko eduki kutsakorrek jasotzeko erabiliak eta aurtengo kutsadura hori ekidintza asmoz, bidioien erabilera deuseztatu da: "Donostiako Pirata elkartearekin hitz egin genuen eta poltsa puzgarriak erosi ahal izateko helbide baten berri eman ziguten; aurtengoan, poltsa horiek banatuko ditugu eta erreka ez dugu kutsatuko, ez dugu zikinduko", dio Unai Olalde.

Honi jarraikita, Ane Etxebestek eskuragarritasunari ere erreferentzia egin nahi izan dio: "poltsa puzgarrien banaketarekin parte hartzea errazagoa izango da; flotatzeko materialaren bila ibili behar izaten genuen eta orain materiala eskuragarri erongo da".

Maiatzaren 19ko Txapin Festan, batik bat, 18 eta 28 urte bitarteko gazteak elkartzeko dira, guztiak Tolosarrak. Harremanetarako hizkuntza euska-

Egitaraua

- 11.00 Berazubiko lokaletik abiatuta kalejira gazte lokaletatik. Herriko lokal desberdinak ezagutzeko aukera txarangaren musikaz lagunduta.
- 12.30 Baltsa jaitsiera
- 14.00 Bazkari herrikoia. Plaza Berria Ondoren Bertsolariek eta jolasak
- 20.00 Kontzertua. Plaza Berria
- 22.00 Kontzertua. Karma eta Kantaflor



ra izango dute, izan ere, haiek aldarrikatu bezala, "festa euskalduna da, gure komunikazio hizkuntza euskara delako", baita "parekidea, parte-hartzailea eta aldarrikapen desberdinak kaleratuko dituen" ere.

Horretaz guztiaz gain, jende berriaren artean harremanak sortzeko baliagarria ere bada Tolosako Txapin Festa: "lortu dugu jendea harremanetara, ez soilik lokala dutenen artean -Tolosan 37 bat gazte lokal daude-. Hasiera batean, jende-harremanak sortu nahi genituen eta lokaletatik bideratu genuen, lokaletako harremanak sortze aldera. Lokal harremanak baino kolektibo eta koadriela arteko harremanak sortu dira; konfiantza eta jendea ezagutzeko aukera

sortu da", laburbildu du Unai Olalde.

Urtetik urtera antolakuntza handiagotzeak, ekintza berriak eta aurrekontu igoera ere ekarri duenez, Tolosako Udalaren babesarekin eta ondo pasatzeko gai direla.

Txapin Festa ezagutzen ez duten gazteei aurtengoan parte hartzeko gonbitea luzatuz amaiera eman nahi izan diote elkarrizketari. Honela, Estanisek festaren izaera "irrekia" azpimarratu nahi izan du eta Anek eta Unai sorturiko harremanei erreferentzia egin nahi izan diete.

Errotulazioa & inudia
Vicente
www.rotulosvicente.com
943 69 02 94
taller@rotulosvicente.com
Laskibar bialara 25, 1-04 atna
20271, Iruia (Gipuzkoa)

Saldias Miguel
CORREDURIA DE SEGUROS
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA
N. D.G.S. J.1759
Bizi-asegurua
Kotxe-asegurua
Istripuak
Gaisotasunak
Ospitalizazioak
Subsidioak
Lan-istripuak
Enpresa txiki eta ertainak
Erantzukizun zibila
Etxe-asegurua
Denda-asegurua
Erretiroak
Inbertsio fondoak
SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
www.saldias-miguel.com

0100100
00111100
00111100
00111100
Tolosa Bit
Informazioa Zerbitzuak
Ondaragailuak eta konputatzaileak
Erregulazioa eta partikularitateak
Mantentzeak
Oria kalea, 14-behea
Tolosa - Tel.: 943 676 156
Faxa: 943 016 857
tolosabit@facilnet.net
www.tolosabit.es

Maiatzaren 18tik ekainaren 1era bitarteko hitzordduak

irakurri entzun Ikusi

Elur-antzara
Paul Gallico

Ane Urrestarazuk itzulita, Aitziber Alonsok ilustratuta eta Uxue Alberdik irakurrita plazaratzen da AEBetako irakaslearen narrazio sakon eta hunkigarria. Elur-antzara liburua dendetan salgai dago, baita web-orriaren bitartez ere: www.elur-antzara.com. E-liburua eta audio bertsoia web-orritik deskarga daitezke. Liburuari buruzko trailerra ere weborrian dago ikusgai, euskarazko liburu batentzat egindako lehenengoa, gainera. Bazterkeria eta elkarlana, bakardadea eta amodioa, gerra eta izadia dira liburua lantzen dituen gaiak.

Iglu bat basamortuan
Lauroba

Harrigarria izango litzateke basamortuetako dunen atzean, gamelu talde baten pasabidean, iglu bat ikustea. Edo Ipar poloko izotz iraunkorren artean, hondartzako hamaka eta eguzkitakoa aurkitzea. Baina bizitza, kontrakoan indarrean oinarritzen da, izate handiago baten bi alde balira bezala, osagarriak baina aurkakoak. Unibertsio mugiarazten duten ahalak indargeak dira euren kontrakoekin alderatzen ez badira, beraien osagarriekin lehian ez badaude. Bizitzea, azken batean, kontrakoan arteko borroka etengabea da.

Ziztadak
Bidea helburu eta Fora de Quadre

Dokumentala. Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian aurkeztua. Euskal Herrian indarkeriarik gabeko borrokaren inguruan izandako gertakari eta pentsamolde sortaren bilduma. Guztira 21 elkarrizketa jasotzen dira. Sabino Ormazabalak idatzitako liburuan oinarriturik.

Haurrak

Gau berezia. Maiatzak 18, ostirala. Abaltzisketako Txindokiko Itzala parkea 20.00-00.00 bitartean irekita egongo da.

Nazioarteko eguna

Museoen Gau Zuria. Maiatzak 18, ostirala. Tolosa

Kontzertua

Glaukoma diska berria aurkezten + Stepi Selekth. Maiatzak 18, ostirala. Tolosa, Bonberenea. 22.30. Glaukoma talde tolosarrak lehenengoz Bonberenean. Stepi Selektharekin batera beraien lehen lana argitaratuko dute, Bonberenea Ekintzekin batera.

Eraso. Maiatzak 25, ostirala. Tolosa, Bonberenea. 22.30. "Ez Gara Inoiz Hilko" disko berriaren aurkezpena.

Tolosako Musika Bandaren kontzertua. Maiatzak 26, larunbata. Tolosa.

Gose. Maiatzak 26, larunbata. Tolosa, Bonberenea. 22.30

Euskadiko Ikasleen Orkestra. Maiatzak 27, igandea. Tolosa, Leidor. 12.00

Irteera

Artikutzera irteera. Maiatzak 19, larunbata. Urkizutik. Alurtxiki elkarteak antolatuta.

Kirola

Zintzur jaitsiera. Maiatzak 19 eta 20, larunbata eta igandea. Abaltzisketako Txindokiko Itzala. Bost orduko ikastaroa, gutxienez sei laguneko taldea.

XIV orduak. Maiatzak 27, igandea.

Eskalada ikastaroa. Maiatzak 26 eta 27, larunbata eta igandea. Abaltzisketa, Txindokiko Itzala. Bi goizeko ikastaroa. Ordutegia taldearen arabera. Gutxienezko taldea 3 lagunekin.

Merkatua

Udaberriko merkatua. Maiatzak 20, igandea. Berrobi. Berrobiko aste kulturalaren baitan. Bertako produktuak, eskulanak, 2. eskuko gauzak....

Nafarroako eta Behe-Nafarroako produktuen azoka. Maiatzak 24, osteguna. 19.30. Maiatzak 26 eta 27, larunbata eta igandea. Tolosa. NabarHerri eta Tolosako Udalak antolatutako ekitaldia.

Herri kirol jaialdia

Harri Jaia. Maiatzak 24, osteguna. Bedaia.

Nafar estatua gogoan

Mendikuteko (Albiztur) gaztelura bisitaldia. Maiatzak 19, larunbata. Goizeko 10.00etan Urkizuko auzo elkartearen Mendikuteko gazteluari buruzko 20 minutuko proiektioa, Juanxo Agirre Mauleon arkeologoaren eskutik. Oinez Mendikuteko gaztelura, 45 minutuko ibilaldia, gazteluan "Nafarroa Bizirik 1512-2012" izeneko eragile batek plaka jarri eta omenaldia ospatuko da. Dohainik. Izena ematea Tolosako Kultur Etxean.

Amairuko (Baztan) gaztelura

bisitaldia. Maiatzak 20, igandea. Goizeko 08.30ean San Frantziskoko autobus geltokitik Baztanera abiatu. 10.00etan Amairuko gaztelu elkartean kafea hartu eta Juanxo Agirre Mauleonek gazteluaren indusketa arkeologikoari buruzko proiektioa eskainiko du. Gaztelura bisitaldi gidatua eta Amairuko errotan talo dastaketa. 14.00etan bazkaria Mendialde jatetxean. Izena ematea Tolosako Kultur Etxean. 30 euro (bazkaria barne).

Nafarroako eta Behe-Nafarroako produktuen azoka. Maiatzak 24, osteguna. 19.30. Tolosako udaletxeko batzar aretoa. Floren Aioiz, Bixente Serrano Izko eta Joseba Asiron. Sarrera dohainik.

Izanak dirau, 1512. Dantza. Alurr Dantza Taldea. Maiatzak 25, ostirala. 20.30. Tolosa, Leidor. 10 euro.

Nafarroaren Eguna. Maiatzak 26, larunbata. Tolosa. 09.00 Gaiteroen dianak Tolosako auzoetan. 10.00 Gaiteroen dianak alde zaharreko kaleetan barna. 11.00 Tolosako Musika Bandaren diana alde zaharrean. 11.30 Baztango Udala eta Amairuko herriari harrera Tolosako Udaletxean, segidan Plaza Zaharretik buruhandiak, gaiteroen bandak, Tolosako Musika Banda, dantzariak, udal ordezkariak eta herritarrrak Nafarroako etorbidera abiatuko dira. 12.00 Nafarroako etorbidean dagoen haur parkea "Amairu parkea" izendatuko da, bertan momentu bat jarri eta omenaldia ospatuko da. 12.30 Alde Zaharrean erraldoiak, gaiteroak, dantza taldeak,

Bonberenea txaranga, Iparaldeko fanfarrea eta Tolosa Kantari arituko dira. 14.30 Herri bazkaria. Zerkausian. Bukaeran Larrain dantza, Solana kalean. 22.30 Erru gabe, Kaskezur eta Ufestuk. Baztan aldeko taldeekin rock kontzertua Plaza Berrian.

Nazio Baterako Mapak. Erakusketa. Maiatzaren 27a bitartean. Tolosa, Aranburu Jauregia. Herri guztiak kartografiaren bitartez bere nor-tasun kulturala eta politikoa islatu dute, erakusketa honen bitartez azken mila urteetan gure lurraldearen mapa esanguratsuak ikusteko aukera.

Ipuin txokoa

Ipuin Txokoa, gurasoak ere ipuin kontari! Maiatzak 25, ostirala. 18.00. Tolosako Errota Haur Liburutegian.

Erakusketa

"Sua" pelikularen grabaketaren argazki erakusketa. Maiatzaren 25a bitartean. Ibarra, Kultur Etxea. Eneko Aritzaren Lagunak Kultur Elkarte.

Tolosa Kantari

Tolosa Kantari. Maiatzak 26, larunbata. 12.00. Tolosako Agirre doktorearen plazatik (Ton-tokale).

Izaskungo jaiak

Ibarrako Izaskun auzoko jaiak. Maiatzak 26 eta 27, larunbata eta igandea.

Langile eta langabetuentzat ikastaroak, doanik.

Lanbide eta Hezkuntza Sailak diruz lagundua

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Eusko label eta arrautza ekologikoen produkzioa	2012.05.21	20
Europass: ateak irekiz lanari eta formazioari Europar	2012.05.22	4
Txakur-estetika eta ile-apainketako hastapen ikastaroa	2012.06.25	80

2012-2013 ikasturtea

Erdi nahiz goi mailako ziklo formatiboak (2.000 ordu)
- Aurrematrikula: 2012ko maiatzaren 28tik ekainaren 8ra.
- Matrikula: 2012ko Uztailaren 5etik 11ra.
Goi mailako Ziklorako Sarbide Frogaren Prestakuntza
- Aurrematrikula: 2012ko maiatzaren 28tik ekainaren 8ra.

Gure eskaintza irekia ezagutu ezazu (lanerako prestakuntza); azaldu iezazkiguzu zure prestakuntza beharrak.

Gure ikastaro eskaintza ezagutu nahi duzu?
Jo ezazu Tolosaldea GLHBiko bulegora.
Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa
Telefonoa: 943.65.11.47 - 615.775.678

idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com

info@ikastn.com
www.ikastn.com



Goardiako farmaziak

Ostirala, 18	Asteazkena, 23	Astelehena, 28
Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa	Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa	Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa
Larunbata, 19	Osteguna, 24	Astearte, 29
Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa	Olarreaga I. (Korreo, 2) Tolosa	Olarreaga I. (Korreo, 2) Tolosa
Igandea, 20	Ostirala, 25	Asteazkena, 30
Lejeune, Leyre (Euskal Herria, 46) Ibarra	Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra	Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa
Astelehena, 21	Larunbata, 26	Osteguna, 31
Morant, R (Zabalarreta, 1) Tolosa	Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa	Morant, R (Zabalarreta, 1) Tolosa
Astearte, 22	Igandea, 27	Ostirala, 1
Morant, R (Zabalarreta, 1) Tolosa	Lejeune, Leyre (Euskal Herria, 46) Ibarra	Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketza-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(larrialdia)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernialde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	lurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdia, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	943 672 411	943 673 022
Ikaztegieta	Ertzantza	943 675 320
Medikua	Tolosa Gasa	
Irura	Lizartza	
Osasun zentroa	Medikua	943 682 077
Tolosa	Orendain	
Anbulatorioa, larriald.	Medikua	943 655 595
San Esteban, hitzordua	Orexa	
	Medikua	943 682 228

jarri zure publizitatea Galtzaundi aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6
20400 Tolosa
publizitatea@galtzaundi.com
943 655 004
www.galtzaundi.com



SANTA LUZIA GARAJEA

Grua zerbitzua
24 orduetan

943 653 491
943 653 874
943 653 985
943 806 020
Santa Luzia, 1-TOLOSA

SANZ arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

Nafarroa etorbidea,
7 behea
20400 Tolosa

Muxutruk

Lana

• Ingeleseko eta frantseseko klaseak bakar-ka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.16.02.68

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Hortz-protetikoko tituluduna lan bila. 671 44 66 15.

• Klase partikularrak Tolosan. L.H. eta D.B.H. Gai guztiak. 645 710 789 (Ana). Banaka edo binaka. Esperientzia

• Emakumea, etxeko lanak egiteko eta pertsona helduak zaintzeko prest. 943 119839

Etxebizitza

• Pisua salgai Errementari kalean, 42 m2 eta erreforma egiteko. 620 129 295

• Ikaztegietan 100 m2-ko 5. pisua salgai. 3 logela, sukaldia, egongela, komuna eta 2 trastero. Balkoi handi eguzkitsua. 637 914126

• Usurbilgo kaxkoan pisua salgai. 2 logela, sukaldia, sala, komuna eta trasteroa. Dena kanpokalde, hiru balkoi, eguzkitsua eta bista onekin. 240.405 Euro.- Premiazkoa da saltzea!! Tlf: 686969112

• Ibarren, ikasleentzako gela bat alokatzen da. 943 119839

Salgai

• Akazia hesolak saltzen dira, barrutiak ixteko. 646 52 47 96 (Peio)

• Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 lagunentzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Ariz.

Horoskopoa

Maiatzaren 18tik ekainaren 1era arteko aurreikuspena



aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Ekonomia ahuldu egingo da, ordaindu gabeko zenbait ordainketa iritsiko zaizkizu eta, kopurua gainera espero baino altuagoa da. Jarrera aldaketa aurkeztuko duzu eta zure balio eskala ere aldatu egingo da.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Galera aroa amaituzat eman dezakezu, oztopoak gailentzeko indarrez aurkituko zara eta horrek bere eragina izango du aurrera begirako gertakizunetan: akzio garaia dator.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Atsedena behar duzu baita azterketa medikoa egitea ere, baja hartzea ere hartu beharreko erabakien artean kokaturik dago. Egoera honek hausnarketarako beta eskainiko dizu. Zure esku dagoenaren kontzientziarik al duzu?



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Buruan duzuna errealitate bihurtzeko desioz zabilzta. Erabakitzeke unea iritsi zaizu: aukerak edo oztopoak azpimarratzea, alegia. Proiektuak partekatzeke grina duzu, indartu edo hondoratuko zaitu.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Amak inoiz baino eragin gehiago izango du zuregan. Hartuko dituzun erabakiak, era batera zein bestera, amarekin izango dute zerikusia. Garai batean ikasitako berritoki ere gogora etorriko zaizu.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Antolakuntzak, pragmatikotasunak, ekintza zehatzek garrantzi gutxi izango dute datozen egunotan. Izan ere, pentsamenduak, kultura, hausnarketak eta intuizioa gailenduko dira beste edozein gainetik.



libra

Irailak 23-Urriak 22

Normalean oso bakartia bazara ere, datozen egunotan sentsazio eta pentsamendu guztiak partekatzeke gogoia izango duzu. Baliabideak ere konpartitzeko hautua egingo duzu eta horrek taldearen partaide izatera eramango zaitu.



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22

Bikotearekin egoteko gogoz zaude, zuren arteko distantzia fisikoa ez da arazo bilakatuko. Ez duzu inolako damurik adieraziko hartutako erabakiarekiko. Buruhausteak, behingoagatik bada ere, besteengan fokatuko dituzu.



sagitarious

Azaroak 23-Abenduak 21

Egin beharrak agenda batean jasoz gero, zure burua eta estres egoera arinduko dituzu. Hala ere, datorren egoera ez da samurra izango. Indarrez aurre egin beharko diozu, laguntza eskatzea zure esku dago, gainera.



capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20

Eskatu aurretik laguntza eskaintzeko joera izaten duzu baina orain emandako laguntza hori ordainetan bueltan hartzea tokatuko zaizu. Ikasgaia ikasteke duzula? Bada garaia!



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Gertakizun batek denboran atzera egitera behartuko zaitu, horrek modu batera edo bestera zentzua emango dio egungo gertaerei. Hartutako erabakiak aztertzeke joera duzu, zuk edo inguruak baldintzatuta hartuko al dira?



piscis

Otsailak 21-Martxoak 20

Egunean egunekoaz arduratzeko hautua egin duzu, aurreko bizimoduak dagoeneko eraginik ez duela ohartu zara. Zure inguruarekin harremana sakontzeko intentzioa duzu, intentzioa errealitate bihurtu beharko zenuke.



Publierreportaia

Tolosako Inmakulada Ikastetxea

Tolosako Inmakulada Ikastetxea (TIK) Euskal Herriko Ikastolen elkartearen baitan (EHI) dagoen Erdi eta Goi Mailako Lanbide Heziketako itunpeko Zentroa da. Gure irakaslan Formazio Arautuan zein Formazio ez Arautuaren esparruan garatzen dugu.

Irakaskuntza Arautuari dagokionez, Osasunaren eta Gizarte zerbitzuak lantzen ditugu.

1- Erdi Maila

Erizaintza Laguntzailea
Farmazia eta Parafarmazia laguntzailea

2- Goi Maila

Diagnosi Irudia
Osasun Dokumentazioa
Haur Hezkuntza
Gizarte Integrazioa

3- Eskaintza Partziala

Erradioterapia
Haur Hezkuntza

Irakaskuntza ez Arautua, langabezia dagoenari eta birziklatu nahi duen langileari zuzentzen zaie. Anitzak eta mota ezberdinekoak dira antolatzen ditugun ikastaroak (Lanbide, Hobetuz..).

TIK kooperatibista eta euskal izaera duen erakundea da, bere kudeaketarako, Kalitate osoa eta Bikaintasunaren oinarriak on-tzat hartzen dituena. EFQM ereduaren zilarrezko Qa 2008an lortu genuen eta aurten ISO 9001:2008 arauan kreditatzeko asmoa dugu.

Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako Kalitaterako eta Gaitasuna ebaluatzeko Euskal Agentziaren kolaboratzaileak gara.

Osasuna sustatzeko jardunaldiak

Informazio hitzaldiak + lunch-a.

Maiatzak 23, asteazkena. 19.00

"Menopausia". Aritzurri medikua (Institutu Onkologikoko medikua)

Maiatzak 24, osteguna. 19.00

"Alzheimer eta bere zaintzailea". Luis Miguel Otaegui Echevarri medikua (Uztute Asistentzia Zentroko medikua)



TIK-aren helburuetariko bat bertako ikasleek heziketa integrala sustatzea da, pertsona sortzaileak, autosufizienteak, solidarioak, arduratsuak eta gaitasun handikoak formatuz.

Gure enpresek komunikatzeko gaitasuna, arazoak konpontzeko trebezia, lan taldean aritzeko ohitura eta inizatiba duten ikasleak eskatzen dituzte. Errealitate honek gure irakaskuntzarako metodologiari aldaketa sakona eta sustraiak egitea bultzatu gaitu, irakaslearen rola erabat aldatuz eta ikasle bere irakas-prozesuaren jabe bihurtuz.

Gaur egungo punta-puntako IKTetan oi-

narritzen gara: proiektoreak gela guztietan, portatil txikiak, arbela digitala... Finean, gure ikasleek kompetentzia orokorrak eta espezifikoak eskura ditzaten eta lan munduak eta gizarteak dituen erronkei, autonomiaz eta erantzukizunez, aurre egiteko gai izan daitezten lan egiten dugu.

Ikasleengan hirugarren hizkuntzan (ingelese) kompetentziak sustatu nahi ditugu. Beraz, eleaniztasuna bultzatzen dugu, eskura gure lehentasunezko hizkuntza izango delarik.

Gure irakaskuntzak ikasleek dibertsifikazioa hartzen du kontuan eta horretarako Errefortzu Plana daukagu, arazoak dituzten ikasleek ere beren kompetentzien garapena lor dezaten.

Krisi garai hauetan, egoera zail honi aurre egiteko modurik eraginkorrena ondo eta etengabe prestatzea dela uste dugu. Horregatik, Erdi Mailako ikasleei, Goi mailako ziklora joateko ibilbidea sustatzen diegu, sarrera froga prestatzeko ikastaroa eskaintzen diegularik. Era berean, Goi Mailako ikasleek artean, unibertsitatara joateko aukera bultzatzen dugu, eta horretarako, selektibitatea prestatzeko ikastaroa ere eskaintzen diegu.

Osasun eta gizarte zerbitzuen arloko enpresentzako erreferente izan nahi dugu. Hori dela eta, 450 hitzarmen baino gehiago ditugu sinaturik Gipuzkoa mailan.

Lantokiko prestakuntza atzerrian egiteko aukera ematen diegu gure ikasleei, (Italia, Britainia Handia, Frantzia,..) eta urtero ikasle multzo bat joaten da atzerriera LEONARDO eta ERASMUS programen babespean.



Komikia: Joseba Antxustegietxarte



Batxilergoa ikasi nahi duzu?

Leizaran Institutuan aukera baduzu.
Tolosatik hamar kilometrora

Gaztelaniaz zein euskaraz eskaintza zabala:

DBH

Batxilergo Zientifikoa

Humanistikoa

Teknologikoa

Gizarte Integrazioko Goi Mailako Hezkuntza

Zikloa

Gure eskaintza:

-Ondo komunikatuta dagoen ikastetxea

-Gela bereziak

-Liburutegiak

-Laborategia

-Orientazio zerbitzua

-Europako programak: Erasmus programak, Batxilergo ikasle trukea, ikasketa bidaiak

-...



LEIZARAN
INSTITUTUA

Informazioa: www.leizaran.net

Telefona: 943 300 078

Emaila: 012740aa@hezkuntza.net
zikloa@euskalerrria.org